

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Jendaurrean jartzea hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2025eko errolda eta kobratzeko moduan jartzea

Behin-behineko onespena eman zaio hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2025eko erroldari, eta jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, interesa dutenek aztertu eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsitzen joko da, eta kobratzeko aldiari ekingo zaio.

2025eko irailaren 1etik azaroaren 1era bitarteko egun baliodunetan, bi egun horiek barne, hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2025eko ordainagiriak ordaindu ahal izango dira borondatezko epean.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek, ordainketa helbideratuta ez badute, Arraia-Maeztuko Udalak Maeztuko banku erakundean duen kontuan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, epe horretan. Ordaindu aurretik, zergapekoek udal bulegoetan jaso beharko dituzte ordainagiriak, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Zergadunei gogorarazten zaie banku erakunde edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin dezaketela ordainketa. Helbideratuta dauden ordainagiriak banketxeetan kobratuko dira, 2025eko irailaren 30ean.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboari ekingo zaio, hala xedatzen baitu Zergabilketarako Araudi Orokorrak, eta kobratu beharrekoari legez ezarritako errekarria ezarriko zaio eta, hala badagokio, berandutze interesak eta sortzen dituen kostuak ere bai.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Maeztu, 2025eko apirilaren 22a

Alkatea

ANA ASUNCIÓN FERNANDEZ DE MONJE ALZOLA